

GAIZKI ERRANKA

Herensugeak eta ibiltari zuriak



SANTI LEONÉ

Barka diezadatela *Tronu joko*a oraindik ikusi ez edota sekulan ikusteko asmorik ez duten guziek, baina telesail horren inoiz baino antz handiagoa izan du Espainiako hauteskunde kanpainak. Ez bakarrik, Joseba Gabilondok erranen lukeen bezala, alderdien arteko lehiak serieko neomediebalismoa islatu duelako –eliteak beren tropelak mugiarazten, beren interesak defendatzeko asmoz–, baita kanpainako protagonistak ekialdeko herensugeak eta iparraldeko ibiltari zuriak izan direlako ere. Erran nahi baita, fikziozko mamuak izan direlako eztabaidagai nagusiak, fikziozko mehatxuak, baina herritar anitzengan egiazko izua sortzen dutenak: heldu dira ETaren lagunak, heldu dira Espainia hautsi nahi dutenak, heldu dira diktadura komunista baten azpian menderatu nahi gaituztenak.

Nafarroatik atera behar izan gabe ere, eskuin unionistako hautagaiak, Sergio Sayasek, ezin argiago erran du: nazionalismoa –euskalduna eta katalana, erran gabe doa– da Espainiak duen problema larriena. Ez ustelkeria, ez langabezia, ez askatasun falta, ez zorra. Nazionalismoa. Eta irabaziz gero nazionalistek egin litzaketen balizko izugarrikeriek balio dute gertatzen ari diren egiazko izugarrikeriak estaltzeko.

Gorpuzkera sendoagoko fantasma baten kontra joan dira bozkatzera hautesle anitz, faxismoaren fantasmaren kontra hain zuzen. Ikusteko dago orain boto gehien erdietsi dituen alderdiak zer egingen duen. Ezker aldera –pixka bat– lerratuko da? Edo herensugeen eta ibiltari zurien aitzinean Espainiako batasunaren mamua inarrosi eta, konstituzioa eskuan duela, bazkide moderatu baten beharra aldarrikatuko du? Ferraz karrikako egoitzan, “Riverarekin ez” egiten zuten oihu PSOEko hautesleek; gaueko irabazlearen arrapostua berehala etorri zen: “Guk ez dugu marra gorriarik jartzen”. Argi ego ezin. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



“MEZU GARBIA BIDALI DIEGU EUROPARI ETA MUNDUARI”

GABRIEL RUFIAN, ERC-REN DIPUTATUA ESPAINIAKO KONGRESUAN

Esquerra Republicana lehenengo indarra izan da Katalunian. “Dena aldatu behar duen legegintzaldi ziklo berri baten lehen urratsa da. Mezu garbia bidali diegu Europari eta munduari. Liderrak preso dituzten errepublikarzaileek ez dute hutsik egin. Galdera ez da Esquerrak zer egingo duen PSOErekin, baizik eta zer egingo duen PSOEK Kataluniarekin. Indar guztiak barne hartuko dituen elkarrizketa mahaia eskatuko dugu guk, erreferendumaz eta independentisten aurkako kausak ezabatuko dituzten legeez hitz egiteko”. 2019/04/29

